

ENPRESEN EGOERA

Salmentak, kanpo
merkataritza, enplegua eta
soldatak

HILEKO TXOSTENA

> 2021eko abendua

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ogasun eta Finantza
Departamentua



**Diputación Foral
de Gipuzkoa**
Departamento de
Hacienda y Finanzas



AURKEZPENA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak estatistikako azterlanak prestatu ohi ditu Gipuzkoako enpresen salmentei, kanpo merkataritzari, enpleguari eta soldatei buruz, Gipuzkoako enpresen eta ekonomiaren bilakaerari buruzko informazio eguneratua eskuratze aldera.

Informazio hau oso tresna interesgarria da departamentuaren eta Foru Aldundiaren jarduketa bideratzeko, eta, interes orokorrekoa denez, Gipuzkoako gizartearen esku jartzen da argitalpen honen bidez.

Argitalpen honetako informazioa lortzeko, erabili dira **Gipuzkoan sozietate egoitza** duten **enpresa EZ finantzarioek** hilero aurkezten dituzten **aitorpenak**: Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta lanaren, jarduera ekonomikoen eta sarien etekinen atxikipenak eta konturako sarrerak.

Normalean, informazio hau hilero argitaratzen da; dena den, uztaila eta abuztuko datuen analisisa batera egiten da; izan ere, uztaileko aitorpen-likidazioa aurkezteko epea, udara dela-eta, hilabete luzatzen da, irailaren 25eraino.

Eranskinaren hasieran dagoen oharrean aipatzen den bezala, metatutako epealdietako (hiruhilekoak, urtekoak...) bariazioak kalkulatzekoan populazio konstantearen irizpidea erabili ordez, batez besteko ponderatuaren irizpidea erabiltzen da.


EZAUGARRI NAGUSIAK

- 2021ean Gipuzkoako enpresen salmentak %16,8 igo dira, 2020aren aldean. Esportazioen hazkundea zertxobait handiagoa izan da (+%18,7), eta barruko salmentena pixka bat txikiagoa (+%15,8). Errebote positibo horren arrazoi nagusia da iazko lehen hilabeteetan izandako beherakada handia, alarma egoeraren adierazpenaren, ondorengo konfinamenduaren eta ekonomian funtsezkoak ez ziren jarduera guztiak gelditzearenak.
- Testuinguru horretan, egokiagoa da aldaketa tasak ikustea pandemia aurreko 2019 bezalako epealdi batekin. Kasu horretan, salmenta osoak +%3,9 igo dira, eta hemen barruko salmentak (+%4,2) esportazioak (+%3,4) baino zertxobait gehiago hazi dira. Azkenean, 2021ean, non pandemiak oraindik eragin handia izan duen ekonomian, salmentek garai normal batean baino maila handiagoa erakusten dute.
- Lan-merkatuan, 2021eko abenduan lan etekinen jasotzaileen kopurua %1,0 igo da urte arteko terminoetan, eta urteko metatuan +%1,1 hazi da. Abenduan ordaindutako soldatak %0,9 igo dira 2020ko hil beraren aldean; urteko metatuan igoera +%4,3koa da. Emaizta horiek, salmentek bezala, aurreko urteko murrizketa nabarmenaren eta ERTE-en eraginaren eraginpean daude. Horrela, 2021 2019arekin alderatuta, enplegua %1,8 jaitسي da eta soldatak %0,7 igo.

1. taula - GIPUZKOA KO ENPRESEN ADIERAZLE NAGUSIAK (Urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	Δ% Abendua 2019/2021	Δ% Urtarrila-Abendua 2019/2021	Δ% Abendua 2020/2021	Δ% Urtarrila-Abendua 2020/2021
Salmenta osoak	12,4	3,9	6,9	16,8
Barruko salmentak	9,2	4,2	12,2	15,8
Esportazioak	19,3	3,4	-2,3	18,7
Inportazioak	32,6	5,5	23,2	22,0
Enplegua	-2,8	-1,8	1,0	1,1
Soldatak	-0,3	0,7	0,9	4,3

1. grafikoa - SALMENTAK (urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)



**SEKTOREEN ARABERAKO SALMENTAK**

- 2021ean salmentak igo egin dira industrian (+%21,6) eta zerbitzuetan (+%14,4), baina jaitsi egin dira eraikuntzaren sektorean (-%9,8)

Estatistika ondorio hutsagatik, 2021a 2020 bezalako epealdi batekin alderatuta, non sektore jakin batzuk itxita zeuden eta beste batzuk muga handiak zituzten, salmentek gora egin dute. Horrela, salmenta osoak +%16,8 hazi dira.


Sektoreen arabera analisiaren susperraldi intentsitate desberdinak ikusten dira: industriako salmentak %21,6 igo dira eta zerbitzu sektorekoak %14,4. Eraikuntzan, aldiz, salmentak %9,8 jaitsi dira.

Lehen esan bezala, alderaketa homogeenagoa eginez gero (adibidez, 2019. urtearekin alderatuta), salmenta osoak %3,9 igo dira. Industrian salmentak +%5,0 hazi dira eta zerbitzuetan +%6,6; aldiz, eraikuntza salmentak %23,1 jaitsi dira 2019arekin alderatuta.

2 taula - SEKTOREEN ARABERAKO SALMENTA OSOAK (urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	Δ% Abendua	Δ% Urtarrila-Abendua
Salmenta osoak	6,9	16,8
▪ Industria	1,5	21,6
▪ Eraikuntza	49,1	-9,8
▪ Zerbitzuak	8,9	14,4

2 grafikoa – SEKTOREEN ARABERAKO SALMENTA OSOAK
(urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)





ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK

➤ Gipuzkoako enpresen esportazioak %18,7 igo dira 2021ean

Osasun-krisiak eragina izan du produktuen eta zerbitzuen trukean mundu osoan. Pandemiaren lehen hilabeteetan, jarduera ekonomikoaren zati handi bat eten zen herrialde askotan, eta horrek aldaketak eragin zituen mundu osoko hornikuntza eta ekoizpen kateetan. Aldi honetako konparazioetan eragina du alderaketak 2020ko epearekin direla, non martxoaren bigarren hamabostalditik aurrera gelditu egin ziren ekonomian funtsezkoak ez diren jarduera guztiak. Hori dela eta, 2021ean Gipuzkoako enpresen esportazioak %18,7 hazi dira, eta inportazioak +%22,0. Konparaketa homogeenago batek, 2019arekin, erakusten du esportazioak %3,4 hazi direla, eta inportazioak %5,5 handitu direla.


Bestalde, 2021eko urtarrileko datuetatik aurrera lehen aldiz erakusten da esportazioen/inportazioen egituraren Brexitaren ondorioz izandako aldaketa. Erresuma Batua EBtik ateratzeak esan nahi du BEZaren aplikazio lurraldearen eta Erresuma Batuaren artean egindako eragiketak ez direla Europar Batasunari egindako entrega/eskuratze gisa kalifikatzen, eta EBtik kanpoko gainerako herrialdeetarako esportazio/inportazio gisa kalifikatzen direla. Neurri batean, horren ondorioz, 2021ean EBra egindako esportazioak %3,4 bakarrik hazi dira, eta gainerako herrialdeetara egindakoak, berriz, +%45,3. Inportazioetan, eta erosketen horien jatorria aztertuta, EBtik egindakoak %17,6 igo dira, eta EBtik kanpotik egindakoak, berriz, %36,3.

3. taula – ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK (urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	Δ% Abendua	Δ% Urtarrila-Abendua
Esportazioak	-2,3	18,7
▪ Europar Batasuna	-9,2	3,4
▪ Munduko gainerako herrialdeak	5,6	45,3
Inportazioak	23,2	22,0
▪ Europar Batasuna	18,8	17,6
▪ Munduko gainerako herrialdeak	35,6	36,3

3. grafikoa - ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK

(urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)



SEKTOREEN ARABERAKO ENPLEGUA

- 2021ean %1,1 igo da Gipuzkoako enpresetan lan egiten duten pertsona kopurua

2021eko azken hilabete honetan Gipuzkoako enpresetan lan egiten duten pertsona kopurua %1,0 igo da, eta, modu horretan, urtea +%1,0eko igoerarekin itxi da. Azkenean, ez da lortu covid-19ren pandemiak eragindako krisi ekonomikoaren ondorioz 2020an galdutako guztia berreskuratzea (-% 2,2)

Urte honetan, salmentek oro har gora egin badute ere, lan etekinak jasotzen dituzten pertsonen kopuruaren gainean izandako eragina askoz ere txikiagoa izan da. Alde batetik, 2020an bizitako egoeran, enpleguaren portaera ez zelako hain negatiboa izan (ERTEen eragina), eta, bestetik, adierazle hori kalkulatzeko metodologiagatik beragatik (edozein hilabeteko epean enpresatik gutxienez soldata bat jaso duten pertsonen kopurua, zenbatekoa edozein dela ere). Horregatik guztiagatik, orain hobekuntza erlatiboa ere txikiagoa da.


Datuak sektoreka aztertuz gero, ikusten da enplegua pixka bat igo dela industria sektorean (+%0,1), eta nabarmenago zerbitzuen sektorean (+%2,6); eraikuntzan, berriz, jaitsi egin da (-%1,8).

4. taula – SEKTOREEN ARABERAKO ENPLEGUA (urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	Δ% Abendua	Δ% Urtarrila-Abendua
Enplegu osoa	1,0	1,1
▪ Industria	1,8	0,1
▪ Eraikuntza	-1,4	-1,8
▪ Zerbitzuak	0,3	2,6

4. grafikoa - SEKTOREEN ARABERAKO ENPLEGUA

(urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)



SEKTOREEN ARABERAKO SOLDATAK

- 2021ean Gipuzkoako enpresek ordaindutako soldatak %4,3 igo dira, aurreko urtearen aldean

Abenduan igoera +%0,9koa izan da, baina urtearen amaieran Gipuzkoako enpresek guztira ordaindutako soldatak gehiago igo dira (+%4,3). Gainera, soldaten bilakaera enpleguarena baino hobea izan da (+%1,1). Lehen aipatutako arrazoi metodologikoengatik izan daiteke hori. Alde batetik, ERTEen eraginez, enplegua egonkorragoa da (2020an gutxiago jaitsi zen, eta, beraz, 2021ean gutxiago hazi da). Bestalde, soldatak gehiago jaitsi dira 2020an, eta, orain, 2021ean, susperraldia handiagoa da.

Sektoreen arabera banaketari dagokionez, 2021ean soldatak igo egin dira industrian (+%4,0) eta zerbitzuen sektorean (+%5,4), baina jaitsi eraikuntzan (-%0,3).


Lehenago aipatu den bezala, 2021ean enpleguak (+%1,1) soldatek baino gutxiago egin dute gora (+%4,3); beraz, langile bakoitzeko batez besteko ordainsariak %3,2 egin du gora. Industrian enplegua %0,1 igo da eta soldatak %4,0 hazi dira; beraz, batez besteko ordainsaria %3,9 igo da. Eraikuntzan enplegua jaitsi egin da (-%1,8), baina, soldatak baino gutxiago (-%0,3); eta, beraz, batez besteko ordainsaria %1,5 igo da. Zerbitzuen sektorean, enpleguak +%2,6 egin du gora, eta soldatak, berriz, gehiago igo dira (+%5,4); beraz, batez besteko ordainsariak %2,8 egin du gora.

5. taula – SEKTOREEN ARABERAKO SOLDATAK (urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	Δ% Abendua	Δ% Urtarrila-Abendua
Soldata osoak	0,9	4,3
▪ Industria	0,5	4,0
▪ Eraikuntza	-4,4	-0,3
▪ Zerbitzuak	2,0	5,4

5. grafikoa – SEKTOREEN ARABERAKO SOLDATAK

(urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)





GIPUZKOA KO ENPRESEN SALMENTAK, KANPO MERKATARITZA, ENPLEGUA ETA SOLDATAK

Estatistiken eranskina

Oharra.

Eranskin honetan hileroko bariazio tasak ematerakoan populazio konstantearen irizpidea erabili da. Hau da, bariazio tasa kalkulatu da bi urtez jarraian hilabete berean aitortzen duten enpresekin. Populazio konstantearen arabera bariazio tasa horiek sektoreen koiuntura erakusten dute, eta bariazio demografikoek ez diete eragin. Populazio konstantea definitzen den moduari esker, ez da beharrezkoa erregistratu gabeko datuak egozte.

Aldiz, hiruhileko, urteko eta epealdi metatuei dagozkion bariazioak kalkulatzeko batez besteko ponderatuak erabili dira.

1 taula - SALMENTA OSOAK: BARRUKO SALMENTAK ETA ESORTAZIOAK

Epealdia	Salmenta osoak	Barruko salmentak	Esportazioak
2006	7,1	6,6	8,4
2007	7,1	6,1	10,0
2008	0,0	-1,5	4,6
2009	-20,5	-20,2	-21,6
2010	2,1	-4,6	21,6
2011	0,5	-5,0	12,8
2012	-5,1	-8,0	0,4
2013	-3,6	-5,4	-0,5
2014	3,3	3,3	3,2
2015	4,9	3,0	8,2
2016	0,4	1,7	-1,8
2017	7,5	9,5	4,1
2018	6,6	5,8	8,0
2019	2,8	2,5	3,4
2020	-10,1	-9,1	-11,9
2021	16,8	15,8	18,7
2020 (1)	-10,1	-9,1	-11,9
2021 (1)	16,8	15,8	18,7
2020 I	-7,1	-6,0	-9,0
II	-23,1	-20,5	-27,8
III	-9,6	-7,5	-13,7
IV	-1,2	-2,9	2,0
2021 I	6,4	4,9	9,3
II	38,3	35,4	44,0
III	15,3	12,6	20,9
IV	11,0	13,1	7,3
2020 urtarrila	-9,9	-6,0	-17,3
otsaila	-1,6	0,2	-5,2
martxoa	-9,4	-11,9	-4,7
apirila	-32,9	-29,4	-39,5
maiatza	-25,3	-22,5	-30,4
ekaina	-11,5	-9,8	-14,5
uztaila	-9,1	-5,8	-15,5
abuztua	-10,6	-9,4	-13,0
iraila	-9,5	-8,0	-12,3
urria	-12,0	-10,7	-14,3
azaroa	-2,0	-1,0	-3,7
abendua	9,2	2,2	24,5
2021 urtarrila	-5,2	-6,3	-2,7
otsaila	3,6	0,3	10,0
martxoa	20,3	21,3	18,6
apirila	46,1	41,0	57,0
maiatza	37,0	33,2	44,6
ekaina	33,7	33,0	35,0
uztaila	18,3	9,6	36,9
abuztua	12,7	12,2	13,8
iraila	14,2	16,1	10,4
urria	12,1	8,1	19,4
azaroa	15,6	19,5	8,6
abendua	6,9	12,2	-2,3

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak

2. taula - PRODUKZIO SEKTOREEN ARABERAKO SALMENTAK

Epealdia	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2006	7,1	13,1	7,7	-1,6
2007	7,1	7,5	11,8	5,6
2008	0,0	1,8	10,5	-4,8
2009	-20,5	-25,1	-11,1	-14,8
2010	2,1	6,0	-21,8	2,1
2011	0,5	3,5	-21,6	0,3
2012	-5,1	-5,1	-25,3	-1,2
2013	-3,6	-4,1	-17,4	-0,4
2014	3,3	3,4	0,9	3,4
2015	4,9	5,4	-7,5	6,3
2016	0,4	-0,7	-5,4	2,9
2017	7,5	6,3	5,1	9,6
2018	6,6	6,5	0,7	7,4
2019	2,8	2,6	-2,0	4,0
2020	-10,1	-12,9	-14,7	-5,5
2021	16,8	21,6	-9,8	14,4
2020 (1)	-10,1	-12,9	-14,7	-5,5
2021 (1)	16,8	21,6	-9,8	14,4
2020 I	-7,1	-10,5	-14,6	-1,1
II	-23,1	-27,2	-19,8	-17,8
III	-9,6	-13,8	-11,4	-4,0
IV	-1,2	-1,2	-12,7	0,4
2021 I	6,4	9,3	-10,1	4,9
II	38,3	45,8	2,3	34,2
III	15,3	25,0	-33,2	11,5
IV	6,9	1,5	49,1	8,9
2020 urtarrila	-9,9	-17,2	-24,2	3,1
otsaila	-1,6	-4,7	4,5	1,7
martxoa	-9,4	-9,3	-21,1	-7,6
apirila	-32,9	-36,3	-33,7	-28,1
maiatza	-25,3	-29,9	-16,7	-20,2
ekaina	-11,5	-16,0	-8,5	-5,5
uztaila	-9,1	-13,4	-2,3	-4,4
abuztua	-10,6	-15,0	8,6	-8,5
iraila	-9,5	-13,4	-31,3	0,5
urria	-12,0	-16,1	-8,5	-6,4
azaroa	-2,0	-4,1	-4,9	1,4
abendua	9,2	16,7	-20,7	5,0
2021 urtarrila	-5,2	-2,6	-26,3	-5,9
otsaila	3,6	7,0	-11,1	1,1
martxoa	20,3	21,9	4,3	20,2
apirila	46,1	55,9	17,4	38,4
maiatza	37,0	49,2	6,4	26,4
ekaina	33,7	35,8	-13,5	38,0
uztaila	18,3	34,3	-42,5	7,8
abuztua	12,7	19,5	-35,2	14,0
iraila	14,2	19,0	-21,7	13,4
urria	12,1	20,7	-29,8	6,5
azaroa	15,6	18,7	-17,7	15,9
abendua	6,9	1,5	49,1	8,9

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak ehunekotan

3. taula – ESPORTAZIO ETA INPORTAZIOAK INGURUNE GEOGRAFIKOEN ARABERA

Epealdia	Esportazioak			Inportazioak		
	Guztira	EB	BESTEAK	Guztira	EB	BESTEAK
2006	8,4	6,3	11,7	11,9	10,4	17,4
2007	10,0	13,3	5,3	12,3	10,7	18,1
2008	4,6	4,2	5,3	0,0	-1,6	5,3
2009	-21,6	-27,1	-13,2	-37,4	-35,8	-42,2
2010	21,6	12,7	32,7	28,4	32,1	16,0
2011	12,8	20,3	4,8	11,0	12,5	5,3
2012	0,4	3,2	-3,1	-8,7	-8,6	-9,2
2013	-0,5	-1,5	0,7	-1,0	-1,2	-0,5
2014	3,2	10,1	-5,4	1,2	0,5	3,7
2015	8,2	6,0	11,4	11,3	10,3	15,5
2016	-1,8	5,7	-12,2	-5,6	-4,7	-8,5
2017	4,1	-2,6	15,1	14,0	13,0	17,7
2018	8,0	17,4	-5,3	10,5	8,4	18,6
2019	3,4	4,5	1,4	3,0	1,2	9,6
2020	-11,9	-12,9	-10,1	-13,5	-14,8	-9,2
2021	18,7	3,4	45,3	22,0	17,6	36,3
2020 (1)	-11,9	-12,9	-10,1	-13,5	-14,8	-9,2
2021 (1)	18,7	3,4	45,3	22,0	17,6	36,3
2020 I	-9,0	-9,6	-7,9	-10,2	-11,3	-6,1
II	-27,8	-26,3	-30,5	-27,2	-29,4	-19,8
III	-13,7	-12,8	-15,2	-14,1	-14,7	-12,2
IV	2,0	-3,1	10,4	-2,1	-3,3	2,1
2021 I	9,3	-3,2	32,0	4,2	0,2	17,9
II	44,0	27,8	74,1	38,7	36,0	46,9
III	20,9	2,1	56,2	22,6	22,3	23,3
IV	7,3	-8,0	30,7	25,6	16,3	56,6
2020 urtarrila	-17,3	-16,6	-18,7	-9,1	-9,7	-7,2
otsaila	-5,2	-7,1	-1,7	-6,9	-9,9	4,4
martxoa	-4,7	-4,9	-4,4	-14,4	-14,1	-15,4
apirila	-39,5	-45,0	-28,3	-27,3	-29,8	-18,8
maiatza	-30,4	-31,7	-28,2	-33,4	-37,3	-20,3
ekaina	-14,5	-1,7	-34,3	-20,5	-20,6	-20,2
uztaila	-15,5	-10,1	-24,0	-16,9	-16,6	-17,8
abuztua	-13,0	-18,3	-3,9	-17,9	-20,7	-8,8
iraila	-12,3	-11,7	-13,6	-8,7	-8,5	-9,3
urria	-14,3	-12,8	-17,0	-10,0	-8,2	-16,1
azaroa	-3,7	-10,7	10,6	-2,1	0,0	-8,6
abendua	24,5	16,7	34,8	6,5	-1,4	35,9
2021 urtarrila	-2,7	-13,4	20,2	-9,9	-10,2	-8,9
otsaila	10,0	-0,5	27,6	-0,8	-4,2	10,2
martxoa	18,6	3,4	44,6	24,0	14,5	61,7
apirila	57,0	48,3	70,7	40,8	39,4	45,0
maiatza	44,6	27,1	74,2	38,7	39,7	36,1
ekaina	35,0	16,3	76,8	36,8	30,2	62,1
uztaila	36,9	8,8	89,4	29,5	26,8	38,6
abuztua	13,8	2,3	31,3	19,2	19,6	18,1
iraila	10,4	-4,2	41,7	19,2	20,4	15,8
urria	19,4	-3,3	59,9	21,1	8,6	68,4
azaroa	8,6	-11,3	47,0	32,8	21,6	73,1
abendua	-2,3	-9,2	5,6	23,2	18,8	35,6

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak ehunekotan

4. taula- PRODUKZIO SEKTOREEN ARABERAKO ENPLEGUA

Epealdia	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2006	-0,2	-1,1	3,7	1,6
2007	1,8	0,9	5,3	3,7
2008	0,2	-1,1	0,2	4,2
2009	-6,1	-7,1	-1,1	-4,8
2010	-2,8	-3,0	-9,7	-0,6
2011	-0,7	-0,3	-11,6	0,5
2012	-3,1	-3,0	-11,2	-2,0
2013	-2,9	-3,3	-9,2	-1,0
2014	-0,7	-2,3	-4,1	2,9
2015	2,1	1,6	-5,6	3,5
2016	2,8	1,7	-7,9	5,5
2017	2,6	2,6	-3,6	3,1
2018	3,6	3,0	3,1	4,5
2019	2,2	2,0	1,2	2,6
2020	-2,2	-2,0	-4,6	-2,3
2021	1,1	0,1	-1,8	2,6
2020 (1)	-2,2	-2,0	-4,6	-2,3
2021 (1)	1,1	0,1	-1,8	2,6
2020 I	2,2	2,0	-4,0	2,8
II	-5,0	-2,7	-4,0	-8,0
III	-3,9	-4,1	-4,6	-3,5
IV	-2,0	-2,9	-6,0	-0,6
2021 I	-3,0	-3,6	-4,3	-2,1
II	3,4	0,3	-0,9	7,7
III	2,9	2,1	-0,9	4,0
IV	1,4	1,6	-1,0	1,2
2020 urtarrila	2,8	2,6	-0,5	3,2
otsaila	1,9	1,8	-7,6	2,8
martxoa	1,9	1,6	-3,7	2,5
apirila	-5,6	-0,7	-5,6	-11,6
maiatza	-4,9	-3,0	-1,2	-7,5
ekaina	-4,5	-4,2	-5,1	-4,8
uztaila	-3,8	-3,8	-4,1	-3,9
abuztua	-4,1	-4,4	-5,6	-3,7
iraila	-3,6	-4,3	-4,1	-2,8
urria	-2,5	-3,2	-6,9	-1,4
azaroa	-1,4	-2,0	-5,8	-0,3
abendua	-2,1	-3,6	-5,3	-0,1
2021 urtarrila	-3,1	-3,9	-5,6	-2,0
otsaila	-3,2	-3,5	-3,8	-2,6
martxoa	-2,6	-3,3	-3,6	-1,7
apirila	3,5	-1,2	1,6	10,1
maiatza	3,3	0,4	-2,4	7,4
ekaina	3,5	1,7	-1,8	5,9
uztaila	3,1	1,7	-2,3	5,1
abuztua	3,1	2,2	0,5	4,5
iraila	2,4	2,5	-0,9	2,4
urria	1,8	1,9	-0,9	1,8
azaroa	1,3	1,2	-0,9	1,4
abendua	1,0	1,8	-1,4	0,3

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak ehunekotan

5. taula – PRODUKZIO SEKTOREEN ARABERAKO SOLDATAK

Epealdia	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2006	4,1	2,8	7,8	7,7
2007	5,9	5,2	10,0	6,9
2008	5,1	3,5	5,0	10,7
2009	-5,3	-6,8	1,0	-2,9
2010	-1,3	-0,8	-9,4	-0,2
2011	2,5	4,0	-11,5	1,8
2012	-2,4	-2,1	-12,7	-0,9
2013	-1,5	-1,2	-9,4	-0,7
2014	-0,1	-0,5	-4,2	1,6
2015	2,1	2,0	-3,3	3,1
2016	2,5	1,9	-8,8	5,2
2017	4,1	4,2	-5,1	4,6
2018	4,6	4,1	6,4	5,3
2019	3,7	3,0	3,7	5,1
2020	-3,0	-3,4	-2,9	-2,3
2021	4,3	4,0	-0,3	5,4
2020 (1)	-3,0	-3,4	-2,9	-2,3
2021 (1)	4,3	4,0	-0,3	5,4
2020 I	2,4	1,6	-1,5	4,2
II	-9,3	-8,4	-6,8	-11,2
III	-4,4	-5,4	-1,9	-2,7
IV	-0,7	-1,4	-1,3	0,6
2021 I	-0,1	-0,1	-1,1	0,2
II	11,9	10,7	3,2	14,9
III	5,2	5,2	-0,1	5,8
IV	1,3	1,2	-2,7	2,0
2020 urtarrila	2,9	2,0	3,5	4,6
otsaila	4,5	2,6	-1,8	8,6
martxoa	-0,1	0,2	-5,1	-0,1
apirila	-9,1	-6,3	-6,4	-14,4
maiatza	-11,1	-10,8	2,7	-12,9
ekaina	-8,0	-8,1	-13,2	-7,2
uztaila	-5,7	-6,7	-5,4	-3,4
abuztua	-4,2	-5,1	4,6	-3,3
iraila	-2,6	-3,3	-3,2	-1,1
urria	-2,6	-3,7	-6,7	-0,1
azaroa	-0,5	-0,5	-2,1	-0,3
abendua	0,2	-0,5	2,6	1,5
2021 urtarrila	0,0	0,5	-3,8	-0,5
otsaila	-3,4	-3,5	-2,7	-3,4
martxoa	3,1	2,4	2,5	4,4
apirila	12,4	9,3	5,8	19,1
maiatza	11,5	10,6	0,1	14,4
ekaina	11,8	12,1	3,7	12,1
uztaila	6,5	6,3	3,9	7,3
abuztua	4,9	4,7	-2,1	5,7
iraila	3,4	3,7	-2,8	3,6
urria	2,8	3,4	-0,5	2,1
azaroa	0,7	0,3	-1,9	1,7
abendua	0,9	0,5	-4,4	2,0

(1) Erreferentziako hiler arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak ehunekotan